

**Udalbatzak ohiko eta ezohiko bilkurak egiten ditu, eta azken horiek, gainera, presazkoak ere izan daitezke.**

### **Ohikoak**

Alkateak deituko ditu, gutxienez bi lanegun lehenago eta Osoko bilkurak aldeztatik ezartzen du ohiko saioen maiztasuna.

**Andoainen hileko azken ostegunean, 19:00etan, biltzen dira.**

### **Bereziak**

Gutxienez bi lanegun lehenago deitzen dira. Alkatearen ekimenez edo zinegotzien legezko kopuruaren laurden baten ekimenez egin daitezke.

### **Presako bilkura bereziak**

Alkateak deitzen ditu, gaiak presakoak izateagatik ezin denean saio berezia deitu, gutxienez bi lanegun lehenagotik. Horregatik, gai-zerrendako lehenengo puntuan berretsi beharko da presa dagoela.

### **Saioen ezaugarriak**

- Deialdiarekin batera, Alkateak, Bozeramaileen Batzordearen (talde politiko bakoitzeko ordezkari batek osatua) irizpena entzunik hala balegokio landu eta igorriko dio Plenoari bilkurako aztergai zerrenda, eta horri jarraiki egingo da bilera. Gai Ordenan azaltzen ez diren gaiei buruz ezingo da akordiorik hartu, Korporazio Plenoak gehiengo batez presazkoak jotzen dituen proposamenen kasuan salbu.
- Kideen heren batek azaldu beharko du gutxienez, eta inoiz ez hiru kide baino gutxiago.
- Alkateak eta idazkariak ere bertan egon beharko dute.
- Saio guztien akta idatzi beharko da, eta hurrengo saioan onartuko da.
- Saioak publikoak dira, herritarren intimitateari, ohoreari edo irudiari eragiten dieten gaiak landu behar dituztenak izan ezik.